



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko irailaren 29a. 21. zenbakia. Doan banatzen da.

Inoiz ez da berandu



Zure argazki denda

fotocolór


ERREBELATUA ORDU EAN




JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

saiakera bilduma dagoeneko salgai

- 1 Manuel Larramendi: bizitza eta obra
- 2 Gerra Zibila andoaindarren begietatik



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu
Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!



KULTUR
BAZKUNAREN
ARGITALPENAK

Aurkibidea

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK

Jon Unanue: "Loth sindromea".

2. INKESTA.

Eta zu, antisorgailuen aldekoa al zara?

3. ADUNA.

Gazteen txokoa.

4-5. ANDOAIN.

HBko zinegotziak batzar aretotik irten ziren. Santa Krutz elizako erretore aldaketa.

6. ASTEASU.

Apaiza aldatu dute.

7. BILLABONA-AMASA.

Eskola denona.

8. ZIZURKIL.

Gazte asanblada lokalik gabe.

9. BASERRIA.

Zizurkil: Otazu mindegia.

10-11. ERREPORTAIA.

Helduen eskola.

12-13. KIROLA.

Uhinen bizkarrean.

14. ERRETRATU ZAHARRA.

Korpus eguna Larraulen. 1970.

15. ZE BERRI? / LEHIAKETA.

16. AGENDA.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur

Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-
esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax:
30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu,
Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.

Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:**
Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal,
Amagoia Mujika, Ainhoa Oartzabal **Argazkiak:**
Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate**
arduraduna: Mailu Ibarbia. **Banaketa**
arduraduna: Iñosen Mujika. **Administratzaile-**
eragilea: Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E.
(Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia.
Lege-gordailua: SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614

Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



M.LARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura sailaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru
Aldundiko Kultura
Departamentuaren laguntza jaso du.

Aiurritarrak

LOTH SINDROMEA



JON
UNANUE

Aspaldidanik bizi naiz ni ere gatz-irudi bihurturik geratzeko beldurrez, euskal hiritar askori gertatu bezalaxe, egunerokoari behar bezala so eta adi jarri beharrez abstrakzioerik egin gabe; Gurutz Jauregi eta atzetik izan duen segizio tropela ditugu gatz-mortu horretako azkeneko irudiak, baina lehenago ere asko bertakotu dira. Asko dira ere, ordea, ustezko aurrerabidean dihardutenak, etsibidea aurrerabide edo konponbidearen antipodatan dagoke-lakoan. Ni neu azken horiekin nago.

Alabaina, euskal gizartean soma litekeen etsipena ez da homogeneoa, eta hamaika motibo eta arrazoiri erantzuten dio. Nork bere dituen herri edo aberri ereduaren, gizarte eta kultura ereduaren, hizkuntza beharren, hildako, bahituriko edo presoaren arabera bizipen bezainbat arrazoi bilduko ditugu -asko erabat aurkakotuak, beraz- etsitzeko, herri honetan zapuzturik bizitzeko.

Zer esan dezakegu, bada, abertzale eta euskaltzale garenok aurrera egiteko behar genukeen proiektu amankomun gutxienekoaz? Zer esan herri euskaldunaren etorkizunerako proiektu sozial eta kulturalaz? Aspaldidanik bidera ezina egin dugula gure kulturaren eta hizkuntzaren etorkizun normalizatua, gure gizartearen normalkuntza, azken finean. Zenbat herritar etsiarazi ala zapuztu du errealitate horrek? Ez, alajaina!, hala dauden guztiak, ezta gutxiagorik ere!...

Euskal gizarteak, oro har, alderdi politikoaren eskumenean utzi du erabat hamabost urte luzez euskal gizartearentzako proiektua gauzatzeko erantzukizuna, eta alderdien gonapean uzkurtu da, hortik kanpo ezer gutxi egiteko gauza izan delarik, baterean ala besterean diskurtso eta estrategiaren zurrunbiloak estekaturik. Orduz geroztik hasi ziren naharago agertzen gatz-irudiak gure gizartean, edozein ekimen sozial, politiko eta kulturaletik erabat aldentuz, "deskonektatuz", bere burua "lurperatuz".

Eta betiereko leloa da: euskaltzaleok, abertzale izan ala ez, gutxienez oinarritzako proiektu kultural, politiko eta sozial bat gauzatzeko gai izan behar dugu lohi astunetan ez amiltzeagatik. Estrategia isil bat, itun berri bat, aurrean erronka ia ezinezkoa duena. Ezina, ikusiak ikusita aurrez baldintza zehatzak esijitzen di-tuelako, eta horien artean oso nagusi bat: indarkeria orori amaiera ematea alde edo moldez, gaur bertan. Hor, bada irtenbiderik, bada itxaropen errealik, bada ilusiorik.

Bienbitartean, immobilismoa izango da nagusi, etsipena eta zapuzkeria, herrigintzari uko egitea, konpromezuen onanismoa eta, batez ere, indarkeria... Indarkeria eta, gero eta nabarmenago, porrota.

Bienbitartean, Lothek aurrera darrai, presati, atzera begiratu ezinik gatz-irudi bihurturiko andre, lagun hurko eta herikideei laguntzeko, ulergarri baitzaio haiek etsi eta burua atzera itzultzea. Bera, berriz, aurrera presati..., eta aurrerabidean!

ETA ZU, ANTISORGAILUEN ALDEKOA AL ZARA?

Emakumeari buruzko Mundu Konferentzian izan diren eztabaidetan metodo antisorgailuen erabilera plazaratu da beste behin. Aurten gainera, sekulako ezustea jaso zuten askok, komunikabide batzuek Vatikanoko metodo antisorgailu oro onartzen zituela kaleratu

zutenean. Okerra agudo zuzendu zuten, eta Eliza katolikoak berehala berretsi zuen metodo antisorgailu "naturalak" besterik ez dituela onartzen. Albistearen hariari jarraituz herritarrek antisorgailuen aldekoak ala kontrakoak al diren jakin nahi izan dugu.



JOXEPI GARITANO, LANGILEA. ASTEASU.

Ohikoak eta beharrezkoak dira. HIESa eta antzeko gaitzen aurka oso eraginkorrek dira. Preserbatiboan erabilera erabat normalizatuta dago. Ora in ehun pezetatan saltzen dituzte gainera, gazteek gaitzik eta nahi ez duten haurdunaldirik izan ez dezaten.



AINHOA SETIEN, BULEGARIA. ANDOAIN.

Alde nago. Beti ez gaude umeak ekartzeko moduan: dirua behar da, etxea eta beste gauza asko. Vatikanoren iritziari dagokionez, uste dut besteen galtzetan ez luketela sartu behar.



PATXI OLASAGASTI, IKASLEA. ADUNA.

Beharrezkoak iruditzen zaizkit. Kontu horretaz gutxiago hitz egin beharko litzateke, denok dakigu eta, beharrezkoak direla. Gaitzak aurrikusteko ezinbestekoak dira. Antisorgailuei buruzko informazioa leku egokietan eman beharko litzateke.



ZUTOIA UGARTE, ETXEKOANDREA. ZIZURKIL

Aita Santuak naturalak ez direla dio, baina antisorgailuei buruz emakumeok baino gehiago ez daki inork. Elizak ez du gai horietan sartu behar. Nork bere ideiei jarraitu behar die. Bestalde, gazteek aspaldi erabiltzen dituzte.



YOLADANDA VILLARRALDE, LANGILEA. BILLABONA.

Egungo bizimoduarekin behar-beharrezkoak ditugu, haurrak izateko unea aukeratu egin behar da eta. Norberak erabaki beharko du antisorgailurik erabili ala ez, baina Aita Santuak ezin dizkigu debekatu.



RAMON VARELA, INGURUGIRO TEKNIKARIA. ANDOAIN.

Antisorgailuen alde nago. Dena den, bikote batean uste dut ez duela emakumeak soilik metodoen erabilera erabaki behar; biek erabaki behar dute. Vatikanoren iritziari dagokionez, ez nau ustekabeen hartu: Elizaren proposamenak beti bezain arkaikoak dira.



HOL - ATZ



VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

Hiru Anaiak

GOZOTEGIA

PASTELERIA

Zumea, 18 ANDOAIN



GAZTEEN TXOKOA

GAZTEEK TXOKO BAT ESKURATU, ETA BERRIZ ERE GALTZEKO ARRISKUA DUTE

Adunako gazteenek elizako arkupeetan biltzeko ohitura zuten. Bertan ordu asko pasatzen zituzten. Hala ere, neguko egun hotz eta euritsuetan arkupeak jasanezinak bihurtzen ziren eta tertulia gelatuak bertan behera utzi behar izaten zituzten behin baino gehiagotan.

Apaizak egunero ikusten zituen eliz atarian, baina ez noski elizara joateko asmoz. Azkenean, apaizak Adunan dagoen erretore etxe zaharreko gela bat eskaini zien, egun etxean ez baita inor bizi, eta aterpe beroagoa zen dudarik gabe gazteentzat.


Gela gazteek duela sei hilabete jaso zuten zerutik etorritako miraria bezala. Euren eskuetan zegoen gazteen etxeak lau horma baino ez zituen eta berehala lanean jarri ziren, gela garbitu, margotu, mahaiak eta aulkiak jarri eta euren nahi eta erara moldatu zuten tertulietarako berezko lekua.

Sei hilabete hauetan ederki aprobe txatu dute lekua. Musika aparatua dute bertan eta gustora egoten dira, hitz eta pitz, marmarka edota algaraka. Noiz edo behin ere egin izan dituzte Amaiaren urtebetetzeak direla eta, edo Asteasutik itzultzean, afari bat edo beste.


Hala ere, politegia eta laburregia Adunako 14 eta 16 urte bitarteko gazteen ustetan. Elizako juntakoek ez dute gustoko nonbait txokoa eta kendu egin nahi diete. Gaz-

teei emandako arrazoi nagusia etxea laster botako dutela da, baina gazteek esandakoaren arabera bi urte izango omen dira etxea botatzerako. Arrazoiak bertatik botatzeko nahia baino ez dela diote gazteek.

Gazteek inori kalterik egiten ez diotela esan digute. Txoko bat izateak ez duela zertan txarrik izan behar eta etxeak bertan iraun bitartean gelditzeko eskatu nahi izan diete Elizako juntakoei zein eragozpenik edukiko lukeen edonori.



Hotzetik babestu nahian



Eiztu
garraioak

EGUNEROKO ZERBITZUA
PAKETEAK
DOKUMENTUAK

☎ 908 - 77 60 10
☎ 69 39 18

DONOSTIALDEA - TOLOSALDEA - GOIERRI ALDEA



*ogi berezi eta artesauak
...
etxerainoko zerbitzua*

OGI ZURI OKINDEGIA, S.L.
Lizarra-etxea, 32 / Elizmendi auzoa.
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

OGI · GOXO



• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TEILAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA



HBKO ZINEGOTZIAK BATZAR ARETOTIK IRTEN ZIREN

- PILAR BERASAIN BIURRARENAREN KARGU HARTZEA
- KALE IZENEN ALDAKETA

Herri Batasuneko ordezkariak batzar aretotik irten egin ziren bi mozio aurkeztu ondoren: lehenengoak, HBko zinegotzia den Aritz Arnaiyek udalbatzetan parte hartzeko eskubidea errespetatzea eskatzen zuen; bigarrenak

berriz, Euskal Herritik Espainiako indar polizialak alde egin dezaten. Jose Antonio Perez Gabarain alkateak azaldu zuenez, HBko zinegotzi espetxeratuak udalbatzan parte har zezan eskaria eraman zuen epaitegira Udalak, baina ezetza eman zaio.

“Udal honetan egoera ez dago normalizatuta, eta ez dago, gainera, normalizatzeko bidean”, adierazi zuen J.J. Petrikorena HBko zinegotziak, “eta guk bienbitartean parte hartu gabe jarraituko dugu”. Halaber, Udalarari Aritz Arnaiyen eskubidea errespetatzearen pausorik ez ematea leporatu zion.

HBko zinegotziak udalbatzetan parte har dezan, hurbilen dagoen espetxera, hau da Martutenera eraman

dezaten eskatzen zen mozioan, hala nola Udalak eskura dituen baliabide guztiak erabiltzea, hau da, legeak eska-tzen dituen baldintza eta gestioak burutzea.

Bestalde, J.J. Petrikorenak positibotzat jo zuen abuztuan Polizia Nazionalak eta Goardia Zibilak Andoainen izan zuen jarreraren ondorioz, alderdi guztiek sinatu zuten salaketa. Eta beste urrats bat eman nahian Espainiako indar polizialek Euskal Herritik alde egin dezaten eskatzen zuen bes-

te mozioa aurkeztu zuen.

Mozioak aurkeztu ondoren HBko zinegotziak batzar aretotik irten egin ziren, eta mozioak ez ziren bozkatu. Jarraian EAJ-PNVko zerrendakide independente eta zinegotzi berriak, Pilar Berasain Biurrarenak kargua zin egin zuen.

KALE IZEN ALDAKETA

Euskara batzordeak proposatuta, eta hurrengo urtean egingo den biztanle errolda berriak kaleen izen berrien zabalkundearen izango duen garrantzia kontuan

hartuta, kale izen aldaketa hauek onartu dira:

“Ankoras kalea” aurrerantzean “Aingurasutegi kalea” izendatuko da; “Eskolak kalea”, “Eskola kalea”; “Kale berria”, “Kaleberria”; “Kale txiki”, “Kaletxiki”; “Beheko plaza”, “Bekoplaza”; “Leizaran kalea”, “Leizaran kalea”; “Ubillos auzoa”, “Ubilluts auzunea”; “Santa Krutz auzunea”, “Olagain auzoa”; eta “Goiko plaza”, “Goikoplaza”.

Kale eta auzo horietako bizilagunei aldaketen berri bereziki emango zaie.

JAIK MIMENDI KALEAN

“LASARTEKO AUZO BAT EMATEN DUGU”

Apirilean eskatu zioten Mimendi kaleko bizilagunek jaiak antolatzeko dirulaguntza Udalarari. Erantzuna irailean jaso dute, eta gogorik falta ez izan arren, ez dute egitaraurik antolatzeko astirik izan. Aurten saioa egin dute behintzat, egitarau zirriborro bat prestatu dute, eta bazkari bat antolatu dute hurrengo asteburuan. Lanean hasiak dira dagoeneko bizilagunen artean berria zabaltzeko eta ekintzak antolatuz dirua eskuratzeko.

“Auzoan ez da ezer antolatzen, Lasarteko auzo bat ematen dugu”, esan digu Fco. Javier Alvarez bizilagunak jaiaren zergatiak galdetu diogunean, “herriko jaietan ere dultzainariak goizeko zortzietan igarotzen dira, eta kitto!”. Bestalde Udaletik erantzuna oso berandu jaso dutela eta, aurtengo jaiak bizilagunen bazkari batera mugatuko dira hurrengo asteburuan. Dena den, ez zaiei ideiarik falta dirua biltzen hasteko eta hurrengo urterako egitaraua behar bezala osatzeko.

Zirriborro gisa prestatutako egitarauetan, besteak beste, afaria, poteoa, berbena, haurrentzako jolasak, futbol saioa, mozorro lehiaketa eta txerrikumearen harrapaketa egitea zeukaten pentsatuta. Bienbitartean Kultura batzordean herriko jaietako ekintzak herri gunetik ateratzearen komenentziaz eztabaidatzen aritu dira.

MAINDIKO URA

Udako hilabeteetan inoiz baino kutsadura maila handiagoa izan du Zumea kaleko Maindi iturriak. Behin baino gehiagotan adierazi izan da komunikabideen bitartez bertako ura ez dela edangarria.

Udaleko ingurugiro teknikaria den Ramon Varelak adierazi digunez, egia da zientifikoki aztertuta ura ez dela edangarria, hala ere, edangarri egiten duen kutsadura mailatik ez omen da asko urruntzen.

Dena den, udako egoera nahikoa kezkarria izan da: iturriak ur gutxi ekarri du eta ondorioz, kutsadura maila normalean baino 40 aldiz altuagoa izan da. Ingurukoek, hala ere, bertako ura edaten jarraitzen dute lasai asko, inoiz kalterik egin ez diela argudiatuz. Gaur egun kutsadura maila lehengora itzuli da.





SANTA KRUTZ ELIZAKO ERRETORE ALDAKETA

IÑAKI LARREA ZARAUTZERA; JOXE MARI ORMAZABAL IBARRATIK ETORRIA

Joan den asteburuan egin zioten Santa Krutz elizan agurra bederatzi urtez Andoainen izan den Iñaki Larreari. Aldi berean Ibarrik etorria den Joxe Mari Ormazabali eman zioten ongietorria eliza bete-bete egin zuten andoaindarrek.

- Nora bidali zaituzte?

- Zarautzera, Azken Portu auzora, Santa Klara elizara.

- Nola hartu duzu herriz aldatu behar izatea?

- Apaizok Jesukristoren berri ona zabaltzeko arduradukagu, misiolari gara, eta horregatik ibili behar dugu batera eta bestera. Pena pixka bat ematen du, baina guztiotzat izan obi da aberasgarri.

- Zein izan da zure egitekoa Andoainen?


- Artzaintzat hartzen bagaituzte, jakina da artzainak artaldearekin egon behar duela, eta horregatik elizako lanez gain momentu oro auzoan nire presentzia ziurtatu nahi izan dut.

- Zer esan diezagukezu "zure artaldeari" buruz?

- Santa Krutz inguruan estilo bateko jendea dago: jende heldua gehienbat, eta Andoain bertakoak. Guztiok ulertzeko eran esango dizut: "artalde zaharra" baina oso fina izan da nirea. Eta mezei dagokienez, "bezero dexente" izan dut. Kontuan hartu behar da Santa Krutzekoa Andoainen egun osoz irekita dagoen eliza bakarra dela.



JOXE MARI ORMAZABAL
Zegamarra, 60 urte



IÑAKI LARREA
Donostiarra, 49 urte

- Aldaketak direla eta, zer iritzi duzu Bizkaian egin dute gotzain aldatetaz?

- Onartzen dut, baina pena handia eman dit. Nabiz eta sakonean ebanjelioa guztiotzat bat bera izan, leku bakoitzean ezberdin bizitzen da. Bilbon herriko seme bat beharko litzateke, Euskal Herriak dituen arazo berezitan hobeto murgildu eta ulertu abal izateko. Euskal Herriari badago beste gotzainik, eta gehiago aukeratzeko ez badituzte, ez dakit zergatik izango den. Diotenez, Erroman ez daude oso ados apaiz euskaldunen pastoraltzarekin.


KONPONKETAK ELIZAN

EZ DUTE ERLOJUA ALDATUKO

Teila asko puskatuta daude eta nahikoa zaborra dago teilatuan. Orain hiruzpalau urte hasi zen Andoaingo parroikia Diputaziori dirulaguntzaren bat eskatzen, eta aurten onartu diete eskaria. Aurki hasiko dira konponketa lanak. Bienbitartean ez dira elizkizunak etengo.

Hogeita hemezortzi milioiko kostua dute lanek; Diputazioak ordainduko du erdia, eta herriak beste erdia. Bi hilabetez iraungo dute lanek. Bestalde, behin baino gehiagotan eztabaidatu izan da kanpandorrek erlojua aldatu behar ote den ala ez. Erretoreak berak ziurtatu digu ez dela aldatuko balio historiko handia baitauka.

Erlojua 1928koa da. Urte batzuk lehenago kanpaia erori, eta erlojua hondatu egin zen. Orduan jarri zuten berria. Mekanismo berezia dauka. Gipuzkoan bakarra dela diote adituek.



AIURRI

☎ 30 07 32



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

STOP

LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingeles, frantses, italieraz...)

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



APAIZA ALDATU DUTE

JOSE MARIA ALBISU IZANGO DA ERRETORE BERRIA

Hilaren hamazazpian eginiko bazkarian agurtu zuten azken zortzi urte hauetan Asteasuko eta Larraulgo apaiza izan den Fidel Tolosa eta bide batez, Tolosatik datorren erretore berriari egin zioten ongietorria asteasuarrak. Larraulen berriz, bezperan eginiko afarian egin zituzten ongietorri eta agurrak bi herrietako apaiza izandakoari eta izango denari.

Zaldibia eta Gaintzako erretorea izango da hemendik aurrera Fidel, baina ez ditu ezezagunak Goierri bailarako herriak, amezketarra baita jaiotzez. Asteasura etorri aurretik, Ataun, Bergara eta Ormaiztegiko apaiza izan zen besteak beste, eta berak esan digunez, gogorra egingo zaio Asteasutik eta Larrauldik joatea. "Asteasuarrak eta larrauldarrak asto samarrak zirela esan zidaten bertara etorri aurretik" esan digu Fidel erretoreak "baina gutxi batzuk izan ezik, abeslari trebeak diren txoriak aurkitu ditut astoen orde" gaineratu digu. Ekimen ugari antolatu ditu azken urteotan: herri mezak trikitixa eta dantzarien laguntzaz, txangoak, otordu paregabeak eta nola ez, lagunartea bultzatzen dituzten ekimenak. Tristuraz eta oroimen askorekin doa Fidel eta "jende jatorra eta parroko laguntzaile onak izan ditut inguruan" esanez laburbildu digu herritik joateak ematen dion pena. Elizara joan direnei zein joan ez direnei agur bero bat bidaltzen die eta "ondo eginak gogoan hartu eta gaizki eginak barkatu" esanez agurtu zaigu Fidel.

SAKRAMENTINO BAT HERRIAN


Azpeitiarra eta hirurogeita bost urtekoa dugu Jose Maria Albisu apaiz berria. Tolosako Amaro azuzoan egon da azken hogeita bi urteotan erretorre. "Bertan dagoen eliza guk eraiki genuen, gure eskuz" esan digu bertan igaro dituen urteak gogoratuz. Jose Mariri ere gogorra egingo zaio Amaroztik joatea, nahiz eta gauero Tolosako Sakramentinoen egoitzara itzuli lo egitera. Amaroztiko bizilagun askok hartu zuten parte Albisu agurtzeko bazkarian eta oroigarri ugari oparitu zizkioten erretoreari. Arratsaldero egongo da Asteasun eta Larraulen, bizilagunekin harremanetan jartzeko, bere esanetan, apaiz baten zeregina ez baita meza ematea soilik. "Herriko gazteengana ailegatzeko, zuzenean jo behar da beraiengana", esan digu Jose Marik eta "elizako ateak irekita badaude ere, bertan dioguna kanpoan zabaldu behar dugu" gaineratu digu.



Pena eta pozez doaz bata zein bestea

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



-
-
-
-

kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



ESKOLA DENONA

ESKOLA PUBLIKOKO GURASOEN ELKARTEAK AURTENGO IKASTURTERAKO ASMO HANDIAK DAUZKA

Billabona-Amasa

Flemin Eskola publikoko gurasoen elkarteak urte asko ditu beregain. Izan ere, iazko urtera arte funtzionamendu arazoak zirela medio, ia geldirik egon ziren gurasoak. Iaz elkartearen beharra kontuan hartzekoa zela eta, berriz ere guraso batzuk martxan jarri ziren egin beharrekoak aurrera eraman asmoz.



Guraso, irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea da duten helburuetako bat, euren ustez haur eta gazteen hezkuntza ona ziurtatzeko ezinbestekoa baita eskolan partaidetza dutenen arteko harremana.

Batzorde batzuk eratu dituzte koordinazio egokia lortzeko: alde batetik, erreformari buruzko informazioa jaso eta gaia lantzeari ekin dio batzorde batek, bailarako beste eskola publikoekin eta Udalekin ere harremana lantzen ari dira; bestetik, ikasleentzat janlekuaren nondik norakoak eramateko batzordea eratu dute, janari etxea kontratatzeko, dirua eramateko eta janlekuaren eskaera guztiei erantzuteko. Azkenik, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeke beste batzorde bat eratu dute.

Eskolako gurasoei deialdia zabaldu diete guraso elkartearen parte har dezaten, eskolaren barruan gertatzen denaren berri zuzena izan dezaten.

JUBILATUEN XI. ASTEA



Irailaren 19tik 25era jubilatuek eta pentsionistek berezko jaia izan zuten. Ekitaldi ezberdinak egon ziren, horien artean, mus eta tute txapelketa, bakailao txapelketa, gaixoei bisitak, hitzaldiak eta azken egunean meza eta bazkaria izan dituzte.

Hamaikagarren urtea egin du aurtengo edadetuen jaiak eta oraingoan ere jende ugari bildu da antolatu diren txapelketa eta ekitaldi ezberdinetan parte hartuz

ALEX UZKIANO TUBERKULOSIAK JOTA ESPETXEKO ERITEGIAN

Amnistiaren Aldeko Batzordeak adierazi duenez, Alex Uzkiانو euskal presoak tuberkulosiak jota Sevilla II espetxekeko eritegian egon ondoren, modulora itzuli da eta ohiko bisitaldiak baimendu dizkiote. Alex zazpi hilabetetan isolamendu zeldan egon da, eta AABK zehaztu digunez bertan arratoiekin egon behar izan du. Higiene ezaz gain bertako hezetasuna jasanezina izan da, eta ituteak ere nonahi izan ditu.

Billabonako Udalean Senideak elkarteak Alexen egoera adierazten zuen mozioa aurkeztu zuen bere garaian. Udalbatzak ez zuen onartu.

AMAIA AGIRRE "LAZKAO TXIKI BERTSO PAPER LEHIAKETAN" GARAILE

Amaia Agirre gaztea Ordiziako Lazkao Txiki bertso paper lehiaketan garaile izan da. "Nolatan ahaztu horrelako emakume bat..." izenburupean aurkeztu zituen amonari idatzitako bertso hunkigarriak. Euskal Herriko 14 eta 18 urte bitarteko bertso egileetan lehena izan da Amaia eta 30.000 pezetako saria eraman du. Ez da gutxigorako, lan fina egin baitu. Zorionak Amaia.



GAZTE ASANBLADA LOKALIK GABE

KOSTATA: "LOKALA IZANGO GENUELA AGINDU ZIGUTEN"

Aspaldi ari dira Kostata gazte asanbladako gazteak lokal eske. Abuztuan Juanjo Aranburu alkatearekin eta Maria Angeles Lazkano zinegotziarekin bildu ziren gazteak. Alkateak deitu zituen bilerara eta Karidade etxe azpiko lokala erabiltzeko baimena zutela esan zieten. Hilaren lauean eginiko udalbatzak ordea, atzera bota zuten Kostatari lokala uzteko proposamena.



Arazoak lokaleko giltza eskatze-ra joan zirenean hasi ziren. Lokala erabiltzeko baldintzak ez zituztela ezarri eta beraz, oraindik lokala ezin zutela erabili esan zieten aipaturiko zinegotziek gazteei. Gauzak honela, hilaren hasieran eginiko udalbatzak atzera bota zuen gazteei lokala uzteko proposamena eta Kostatak adierazi digunez, ez zekiten udalbatzak gaia eztabaidatuko zuenik. "Kalean jakin genuen ez zigutela lokalik eman", esan digute gazte asanbladakoek.

GAZTEAK HASERRE

Kostatako gazteak haserre agertu dira Udalean erabakitakoaz eta gehienbat, PNV-EAJ alderdiaren jarre-

raz. "PNV-EAJko politika populista jasangaitz hori egunerokoa bilakatzen ari da" diote gazte asanbladakoek. Bestalde, udalbatzak lokala ez uzteko argudiatu zituen arrazoiak gogor kritikatzeko dituzte, akta jasotzeko arazoak izan zituztela gaineratuz.

Bertan, Ernio Beheko gizarte zerbitzuak lokala erabiltzen zuela argudiatu zuten zinegotzi batzuek. Kostatakoen esanetan, ez dute ulertzen Udal intsumiso batek Gurutze Gorrinari lokala uztea. Halaber, lokala-

ren gaineko bizilagunei arazorik ez sortzeko bota da atzera proposamena.

Bestalde, Kostatakoen lokala eman ez gero, beste taldeei ere eman behar zaiela dio Udalak. Beraz, Kultur Etxean garatu beharko dituzte oraingoz gazteek euren ekimenak, bertako ordutegira eta dinamikara egokituz.

GIZON BAT HIL ZEN AUTO ISTRIPUZ

Hilaren hamazazpian Joakin Imaz Etxabe zizurkildarra amildu zen auto eta guzti Zizurkil goiko bidean, Errekalde baserria eta Beibategi tabernaren artean dagoen errekarara. Berrogeita hamar urteko herritarrak eguerdiko ordubi t'erdietan izan zuen istripua eta zuzenean Donostiako erresidentziara eraman bazuten ere, berehala hil zen. Maiz gertatzen dira leku horretan auto istripuak, nahiz eta oraindik argitzeke dagoen istripuaren zergatia. Hurrengo egunean ospatu ziren hildakoaren aldeko elizkizunak Arantzazuko Amaren elizan.

BABEXA
KAFETEGIA
Urtebetetzeko meriendak

- Aperitiboak (Ibarrako piperrak)
- Gosariak

Kaleberria, 12 - ☎ 59 27 52 - ANDOAIN



HERRI OSTATUA
TABERNA - JATETXEA

HERRIKO PLAZA - ☎ 69 18 55 - LARRAUL

OSABU

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA

ZIZURKIL

OTAZU MINDEGIA

ANDONI OTAÑO: EUSKAL HERRIKO EKOIZLE BAKARRENETAKOA

Orain dela sei urte egin zuen Andoni Otaño zizurkildarrak mindegia. Landare eta fruta arbola ekoizlea da, saltzaileaz gain, Euskal Herrian gutxienetakoa. Gaur egun berrogei landare mota inguru badauzka, eta etxe handiei saltzeaz gain, baserritarrei eta kalekoei ere saltzen dizkie landareak. Bere arloan ikerketak eta esperimentuak ere egiten ditu: egun hauetan Alemanian hobetutako sagarrondo txerto batzuen jarraipena ari da egitenn Otazun.

Hiru hektarea mindegi inguru dauzka hiru ataletan banatuta: landareak sortzen dituen atala, landareak egun argitik eta eguzkitik babesten dituen itzala, eta kanpoaldea. Adaskak kanpotik ekartzen ditu Andonik, txertatu eta hozkailuan gordetzen ditu, itzalera eraman eta ondoren sasiak jan ez ditzan plastikozko ontzietan sartuta kanporatzen ditu. Landareak mindegian hazteko ezinbesteko baldintza ura da, "zelai egokiena ez izan arren, gaur egungo teknologiaz egoki daiteke eta" esan digu Andonik.

Bestalde klimak ere garrantzi handia dauka: haizeak askotan hondatzen ditu landareak, hegoaizeak batez ere, eta tenperatura aldaketa handirik ez badago, beti ere hobe izaten da. Fruta arbolak eta lorategiko lorak hazten dira Otazun, eta txertoak munduko edozein txokotatik ekarriak dira.


BARIETATEAK

Merkatuan sasi-mindegi asko dagoela esan digu Andonik: "Arbola barietate bat dela esan, eta gero beste bat saldu", esan digu. "Aditua izan beharra dago ezagutzeko, eta askotan sarzzen zaie erosleei ziria". Horregatik Diputazioak hamabostero egiten dituen

kontrolean aldekoa da Andoni. Otazun patroik txikiko fruta arbolak dauzkate, sagarrondoak batez ere, hau da frutua azkar ematen duten arbolak: "Horrelako sagarrondo batek adibidez, bi urtetan ale ederrak eman ditzake, eta lorategietan eta baratzetan arbolak jartzen dituztenei ilusio handia egiten die horrek", esan digu Andonik.

LANDAREAK HAZTEA OSO LAN TEKNIKOA DA

Oso lan teknikoak da landareak mindegian haztea. Ureztapena automatizatu arren, egunero begiratu behar zaie landareei gaitzik ba al duten ikusteko eta bakoitzaren bilakaera berezia zaintzeko: ongarrria, tenperatura, ureztapena... Bestalde, gaur egun nekazaritza biologikoa eta ekologikoa oso modan



Landareak itzalean

egon arren, tratamendu kimikorik gabe lanik ezingo litzatekeela egin esan digu.

Gaur egun genetikan egiten ari diren aurrerakuntzak kontuan hartuta, edozein tokitan edozein landare mota sor daiteke, haztea eta mantentzea ordea, ez omen da horren erraza. Txinako kiwi-a da esate baterako, azkenengo urteetan Euskal Herrian erruz hazten ari den fruta arbola berria. Zelandia Berrian hobetu zuten txertoa eta gure ondorengoak bertakoa izango balitz bezala ikusiko dute hazten, sagarra gaur egun iruditzen zaigun bezala, Perziakoia izan arren. "Dena den, beti ere kontu egin behar da Euskal Herriko klima ezin daitekeela Mediterraneokoarekin alderatu", zehaztu digu Andonik.

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazterientzat!!

ZIZURKIL

HELDUEN ESKOLA

ESKOLARA HUBILTZEKO LEHENENGO AUKERA BATZUENTZAT, GALDUTAKO AUKERA BERRESKURATZEKO MODUA BESTE BATZUENTZAT

Andoainen eta Billabonako helduen eskolan klaseak hasita daude honez gero. Ateak ireki zituztenetik bosgarren ikasturtea da aurtengoa. Ikastetxe arruntekin alderatuz urtetik urtera ikaslegoa hazi egin da, batez ere beren garaian OHO titulua atera ez, eta bigarren aukeraren bila eskola hauetako atea jotzen duten 16-20 urte bitarteko gaztetxoek kopurua. Bi arrazoi bultzatzen ditu gazte eta helduak bertaratzera: lanpostuak eta kultur maila igo nahi izateak. Motibazioa batzuegan nahiz besteengan handia da. Hala ere oinarrizko hezkuntza maila eskuratu ondoren, motz gelditu direla iruditzen zaie ikasle askori, eta nora jo ez dakitela geratzen dira.



Nork bere trebetasunak besteei erakutsiz

Hiru ikastaro mota eskaintzen dituzte helduen eskolan: alfabetatzea, hau da irakurtzen eta idazten ikastea, eta oinarrizko kalkulu ezagupenak; oinarrizko hezkuntzari sarrera; eta oinarrizko hezkuntza orokorreko titulua. Oinarrizko ikastaro hauek gain maila apalean hizkuntzak ere ikasten dituzte: euskara ala ingelesa aukeran. Eskulanak ere lantzen dituzte. "Ikastaro hauek beste ikastaroe-tan ezarritako mailak apurto eta ikasleak are gehiago motibatzeke asmoz antolatuta daude", azaldu digute Billabonako irakasleek, "era horretan irakurtzen ez dakien ikaslea, margo-tzen adibidez, besteak baino maila

altuagoa daukala kontura daiteke, eta horrek animatu egiten du".

Hiru ikastaroak amaitu ondoren bi modulo berezi ere badauzkate: erizain laguntzaile ikastaroa eta informatika. "Informatikak hasieran bel-durtu egiten ditu, baina gure asmoa ordenadoreekin gutxieneko kontak-tua behintzat izatea da", esan digute. Gaur egun Tolosan baino ez dago oinarrizko hezkuntza orokorra euskaraz egiteko aukerarik. Andoainen eta Hernanin talderen bat osatzeko gogoia daukate, baina zaila iruditzen zaie, apenas dago eta helduen artean, inoiz eskola euskaldunera joan denik.

ANDOAINEN EDO HERNANIN OINARRIZKO HEZKUNTZA OROKORRA EUSKARAZ

150 ikasle inguru daude Andoainen eta 80ren bat Billabonan. Emakumezkoak gehienak. Alfabetatze mailan etorkin asko, eta titulua eskuratu nahi duen gaztetxo ugari, bere garaian



BORDA
Jatetxea

A N D O A I N

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK
EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58


ANDOAIN

ikasketak utzi, eta orain tituluaren beharraz jabetu diren gaztetxoak, alegia. Hasierako beldurrak eta lotsak gainditu ondoren guztien motibazioa urtetik urtera gero eta handiagoa izan ohi da. Horregatik irakasle askorentzat haurrei eskola ematea baino askoz ere eskeronekoagoa da helduekin aritzea.

Helburuak bi eratakoak izan ohi dira: gaztetxoek INEMek edota lanbide tailerrak antolatutako ikastaroren batean parte hartzeko titulua behar dute ondoren lanposturen bat aurkitu ahal izateko; helduek beren kultur maila hobetu besterik ez dute egin nahi.

METODOAK

Haurrei eta helduei ezin berdin erakutsi, metodoak ezberdinak izan ohi dira. Eta helduei egokitutako material faltak buruhauste bat baino gehiago eman ohi die askotan irakasleei. Bestalde, helduen artean haurren artean baino ikasle mota gehiago egon ohi da, horregatik irakasleak



Gaztetxoak eta helduak nabastuta

moldatu beharra dauka. Era berean helduen artean banakako lan handiagoa egin ohi du irakasleak. Azterketak hitzak izutu egiten omen ditu, horregatik zeharkako ebaluaketak egiten omen dituzte. Etxekolanei

dagokienez, oso gutxitan egin behar izaten dituzte, eguneroko bi klase orduetan ahalik eta lan handien egiten saiatzen dira. Billabonan bestalde, urtero ikasleek egindako aldizkaria kaleratzen dute. Ikasle guztiek hartzen dute bertan parte.

ZIZURKILGO LURDES, 40 URTE, ETXekoANDREA:

-Zergatik etorri zinen eskolara?

-Erizain laguntzaile ikastaroa egin nahi nuen, baina oinarritzko hezkuntza orokorra eginda izan behar nuen. Horregatik etorri nintzen iaz eskolara. Lehenengo urtea oso erraza izan da niretzat; aurtengoa zailtxogoa izango omen da. Baina ni ez naiz estutzen, lasai-lasai etorri eta aurrera.

-Zer da gebien gustatzen zaizuna?

-Matematikak ditut oso gogoko, baina txikitari ere. Historia ez zait hainbeste gustatzen, eta lenguaian berriz, oso txarra naiz.

-Eta informatika?

-Zeharo gauza berria da niretzat. Baina erakartzen nau. Egunean jarri beharra dago.

-Eta klaseko giroa?

-Giro ona dago. Batzuetan irakasleari purrustada batzuk botatzen dizkiogu. Ez da beldurrik izan behar.

-Euskaraz ikasten hasiko al zinateke?

-Gustatuko litzaide, baina ezinezkoa zait. Ez dut inoiz euskaraz eskolarik eman.

BUKATU ETA GERO ZER?

Andoaingo helduen eskolako zuzendaria den Enrike Riañok esan digunez helduen artean alfabetatu gabeko jende asko dago, baina proportzioan gutxi dira eskolara jotzen dutenak. Bestalde, oinarritzko maila lortzen duen asko zer egin ez dakitela geratzen dira bukatu ondoren. Askok jarraituko lukete ikasten, baina ez dute euren buruak institutara joateko moduan ikusten, eta ezin izaten dute aurrera jarraitu. Gaur egun Donostian baino ez omen daukate helduen batxirlegoa institutoan gauez egiteko aukera. Riañoren esanetaz hezkuntza erakundeetara aspaldi eramandako eskakizuna da hori, eta gauzatzeak mesede handia egingo lioke helduen irakaskuntzari.

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURITASUNA !!

KALE BERRIA 22

TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

ANDOAIN

UHINGEN BIZKARREAN

GERO ETA ZALETASUN HANDIAGOA GAZTEEN ARTEAN

Haritzek, Asierrek eta Davidek esan digutenez herrian ba omen dago gazte batzuen artean *surf* egiteko zaletasuna. Ohola besapean hartu eta uda garaian batez ere, trenez Donostia aldera jotzen dute normalean. Hiru andoaindarrek ez dute inola ere argazkirik egin nahi izan, jendeak oso serio hartuko ez ditulakoan edo. Dena den, beraiek aitortu digutenez *surfer*-en artean badago nolabaiteko modari jarraitzeko joera: ile horia, niki koloretsuak, praka zabalak, zapatilak, eta askok *surf* oholarekin ez doazenean, patina hartuta ibili ohi dira. Beraz, arreta pixka bat jarrita, identifikatzeko modukoak dira.



Oreka nola edo hala mantenduz

Skate-a, *snow*-a eta *surf*-a harreman estua daukaten kirolak dira. Hiruretan ohol gainean jarrita, oreka mantendu, eta itzulipurdiak eginez ez erortzeko saioak egin behar dira. Kasu batean patinaren gainean, beste elurretan, eta uhinen bizkarrean *surf*-ean. Hiru lagun hauek gainera *skate*-a egiten ezagutu zuten elkar, eta zaletasun berak eraman omen zituena Donostiako hondartzetara.

Grosen aritzen dira normalean, beste hondartzetan bezainbeste jende ez dagoelako, eta mareak ere bi-ziagoak direlako. Orain dela hiruzpau urte ekin zioten. Udan nahiz ne-

guan egiten dute kirola: "Udan jendea modagatik ibiltzen da asko", esan digute. Benetako zaletasuna urte osoan ibiltzen direnengan igartzen da.

MODA

Moda aipatu dugu, eta ezin izan digute ukatu *surf* egiten dutenen artean zenbait joera amankomun badaudela, janzkeran esate baterako, eta telebistak ezarritako eredu jakin batzuk indarrean daudela: "Denok erosten dugu eta, arropa toki berean". Dena den, eta moda kontuak alde batera utziz, *surf*-ak gazte asko erakarri ditu azken urteetan. Estatu

mailan euskaldunak onenetakoak direla kontatu digute, Kanariar irlتان ere zaletasuna ez dela oraingoa, eta galziarrak berriz, orain dela gutxi hasi omen dira *surf* egiten.

**IRAILEKO
MAREA
BIZIAK
PRIMERAKOAK
DIRA**



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Oholan gainean egoten behin eta berriz saiaturaz ikasten omen da. Bideoak ikustea ere ez omen da txarra. Ezinbesteko tresnak ohola bera, ez irrist egiteko gainean jartzen den parafina, eta hotzetik babesteko jantzia dira. Edozeinek egiteko moduko kirola omen da, eta uretan atzera eta aurrera ibiliz sasoi ona lorzen omen da, azkenean.

Irailan jende asko hurbiltzen da Euskal Herriko itsasbazterreraz *surf* egitera; marea bi-ziak eragiten dituzten uhinak ezinobeak dira. Zarauzko munduko txapelketa ospatu berria ere egun horietan egiten da, eta aurten bereziki, esan digutenez, lehiakideek zorte ona eduki dute, eta ikuskizuna ederra izan omen da. Bestalde, hondartza batzuetan, Donostiako Kontxan eta Ondarretan adibidez, udan debekatuta dago *surf* egitea, bainularien mesedetan. Sasoi horretan Grosen pilotzen dira *surfer*-ak. Gure artean hondartza preziatuenak Zarautzekoa, Ondarretakoa, Oriokoa, Bizkaian Algorta eta Mundaka aldekoak dira, eta Iparraldean ere oso toki egokiak omen daude. Zumaia eta Getaria artean dagoen itsasbazterra adituenentzat dago gordeta, mareak eta uhinak arrisku handikoak baitira bertan.

ZARAUTZEN ORAIN DELA 50 URTE SURF- EAN IBILTZEN ZIREN

Hawai-ko hondartzetako olatu ikaragarriak etortzen zaizkio edonori burura *surf*-a aipatuta, eta *surfer*-ak gogoratzean iparramerikar eta australiar ile hori beltzaranak, munduko txapelduna brasildarra izan arren. Hala ere, beharbada, gutxik jakingo dute Zarautzeko hondartzan orain dela berrogeita hamar urte oholtza xumeak hartuta, uhinen gainean ibiltzen zenik bazegoela.

Kirol arriskutsua al den galdetu diegu, azkenik, hiru andoaindarrei, eta berez normalean arazorik ez dagoela esan digute. Hala ere, uhinen zurrumbilotik, ohola orkantilari lotuta, urpetik irten ezinik behin baino gehiagotan geratu omen dira. Gainerakoan, ez omen dago aparteko arriskurik.



Ur jantziak ezinbestekoak

ANDOAIN PILOTA ETA ZESTA PUNTA SAIOAK ARRATE FRONTOIAN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

URRIAK 1:

Zesta punta gaztetxoak:

Behar-Zana (Billabona) - Beotibar (Tolosa)

Zesta punta gazteak:

Gazteleku (Andoain) - Pulpo (Zumaia)

Zesta punta seniorrak:

Gazteleku (Andoain) - Danok-Bat (Mutriku)

Pala seniorrak:

Gazteleku (Andoain) - Real Sociedad (Donostia)

URRIAK 8:

Zesta punta seniorrak:

Gazteleku (Andoain) - Real Sociedad (Donostia)

Pala seniorrak:

Behar-Zana (Billabona) - Gazteleku (Andoain)

Zesta punta kadeteak:

Gaztelekuak (Andoain) - Behar-Zana (Billabona)

Zesta punta gaztetxoak:

Gazteleku (Andoain) - Behar-Zana (Billabona)

Zesta punta gaztetxoak:

Beotibar (Tolosa) - Pulpo (Zumaia)

Zesta punta gazteak:

Gazteleku (Andoain) - Zumaiko (Zumaia)

Zesta punta gazteak:


Beotibar (Tolosa) - Donosti Jai-alai.



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

KORPUS EGUNA LARRAULEN. 1970.



Orain dela 25 urte ingurukoa da argazkia, Korpus egunean eginna, hain zuzen ere. Herriko neskatilak Ama Birjiñari loreak eskaini ohi dioten eguna. Otarra bete lore gaur egun ere neska-mutilek gogoz betetzen dute tradizioz euren egitekoa. Herriko neskatilak aingeru jantziak aldatu egin dituzte, eta gaur egun, neskek ezezik, mutilek ere egiten dute prozesio txikia herriko enparantzan baserritarrez jantzita. Garai batean elizari egin ohi zioten bira.

Mutil kozkorrek ez zuten jaiari parte hartzen, eta neskatilak normalean jaunartzea egin berri zutenak edota egitear zeudenak izan ohi ziren. On Manuel Katarain erretoarean, bere arrebaren eta herriko beste emakume batzuen zuzendaritzapean prestatu ohi zuten orduan prozesioa. Baina, bai lehen bai orain larrauldarrek estima handitan izan dute beti Korpus eguna. Bizilagunek belar ondus eta lorez apaindu ohi zuten enparantza, gaur egun egiten duten antzera.

LEHENENGO ILARAN EZKERRETIK ESKUINERA: Elena Mujika (Goineta Bitarte); Begoña Elola (Labakane); Mikaela Urkola (Beobide Azpi); Arantxa Irazu (Aienazabal Aundi).


BIGARREN ILARAN EZKERRETIK ESKUINERA: Maria Pilar Otaegi (Larrunbide); Maria Angeles Elola (Labakane).

**PATXINE
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK

Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



ZUBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

ARANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14

ANDOAIN

winterthur



IZASKUN ZURRIARAIN GIPUZKOAKO ODOL-EMAILEEN OHOREZKO BAZKIDE ZIZURKILDARRA; 61 URTE; ETXEKOANDREA

- **Noiz izendatu zintuzten ohorezko bazkide?**
- 1987. urtean. Diploma eta urrezko domina eman zidaten. Izugarritzko ilusioa egin zidan.
- **Zergatik obore hori?**
- Odola askotan eman dudalako. Eta oraindik ere,

medikuek kontrakoa esan arte, ematen jarraituko dut.

- **Noiz hasi zinen odola ematen?**

- 1973. urtean hasi nintzen. Neure kabuz joan nintzen. Ideia ona iruditu zitzaidan eta jarraitu egin dut. Orain dela hiru urte arte hiru hilabetean behin eman izan dut. Azkenengo urteetan berriz, sei hilabetean behin. Indartsu nago, baina horixe aholkatu zidaten.

- **Guztira beraz, zenbat aldiz?**

- 38 aldiz eman dut odola. Aldiko poltsatxo bat ateratzen dizute.

- **Eta noiz arte jarraituko duzu?**

- 65 urte bete arte jarrai daitekeela diote, eta nik nabiko nuke iritsi horrenbeste urte egin eta gero.

- **Ze odol mota daukazu?**

- Onena. Unibertsala esaten zaiona. Jende guztiari emateko moduko odol daukat nik.

- **Non ateratzen dizute?**

- Billabonako ambulategian. Ni azaltzen naizenean, "Hara non datoren aspaldiko Izaskun!" esan ohi dute medikuek.

- **Zergatik egiten duzu?**

- Besteie laguntzeagatik. Odola emanez hiltzeko zorian dagoena salba dezakezu.

- **Inoiz ez al duzu arazorik izan?**

- Ezta bat ere. Probak egin dizkidate eta momentuz ez dago arazorik. Odola atera ondoren baso bat ardo edan, ogitartekoa jan, eta berehala berreskuratzen da galdutako odola eta indarra.

- **Animatuko al zenituzke besteak?**

- Dudarik gabe, besteak laguntzeko aukera edukita, zergatik ez, bada?

NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Bosgarren lehiaketa honetan lana pixka bat zailtzen saiatu gara. Zuhur begiraiezue aurpegi xeble honen aurpegiera nabarienei, eta laster osatuko duzue benetako begitartea, gure pertsonaia ezkutua asmatuz.

Billabonako Truchuelo argazki dendak eskaini digu sari polita: edonon eta edozein egoeratan zaudela, musika entzun dezazun **walkman paregabea**. Anima zaitezte eta bidalguzue erantzuna lehenbailehen. Aurki egingo dugu zozketa.



Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30
BILLABONA

"25. URTEMUGA." PREZIO BEREZIAK

- Karrete bat erosiz hondartzarako baloi bat oparitzen dugu
- Karrete bat errebelatuz, argazki album bat edo giltzari bat oparitzen dugu



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 **TOLOSA**

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 **ANDOAIN**



Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

Agenda

IKASTAROAK

ANDOAIN

1995-96 ikasturtea

Zeramika. Eduardo Arreseygor.

Margo bat nola interpretatu. Miriam Alzuri.

Bideo gidioiak. Sindy Santiago.

Euskal etnografia. Fermin Leizaola.

Bonsai. Pedro Bere.

Zinema lengoia. Esperanza Luffiego.

Argazkigintza. Iñigo Royo.

Pintura eta marrazkia. Estibaliz Jimenez de Aberasturi.

Epea urriaren 2tik 11ra egongo da Kultur Etxean irekita.

LANBIDE BASTAPENAK

Serigrafia

Loragintza

Sukaldaritza

Iturgintza

Autoen txapa eta pintura

Nori zuzendua? **Ikasten ari diren edo langabezian dauden 16-19 urte** bitarteko udalerriko gazteak. Izenematea-udaletxean.

ASTEASU

Haurrentzako ingeles ikastaroak Kultur Etxean.

ZIZURKIL

Aerobik ikastaroa egunero 9.15-10.00. Informazio gehiago liburutegian.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale taldea

Urriak 1:

Gotein-La Madelaiene-ERRETZU (700m)-Monttori.

Urriak 8:

Goizeko irteera: Andoain- Legaire- Bayo (1.197m)-Bikuña.

IKUSENTZUNEZKOAK

ANDOAIN

Urriak 2:

“**Urtaroak mendian**”. Imanol Lasa.

Urriak 3:

“**Natura ibilian ibiliz**”. Jesus Mari Erasquin.

Urriak 4:

“**Irati izanaren mugarr**”. Josu Eizagirre.

Urriak 5:

“**Exphonia Sevillana**”. Txaro Polo eta Jose M. Marruedo. Saioak Urigain Kultur Etxean arratsaleko 7.30etan.

BESTE

MUSKIL ELKARTEA

1995-96 ikasturtea

Urria-maiatza:

Jolasak, aurrekirolak, kirolak. Topaketak.

Mendi irteerak:

Urriak 29:

Perretxiku bilketa.

Noizbehinkako ekintzak:

Eskola orduetan **izotz irristaketa**; eskolaz kanpo: **patinaia, xakea, txirringularitza, eskalada, pottokak/zaldiak eta eskia.**

Herri mailakoak:

mendia, bideoa, jolasak, mahai joku lehiaketak, pilota saioak eta hanka paloak.

Kultur ekintzak:

Dantzariekin eta musikariekin ekitaldiak, ipuin lehiaketa, bertso koplak paper lehiaketa, antzerkigintza, eskulanak eta bertsolaritza.

MERKATU TXIKIA

ANDOAIN

Goi titulatuak **akordeoi klaseak** emango lituzke. ☎ 59 15 24. Ainhoa Elizondo.

ZINEMA

GURE ZINEMA


BILLABONA

“**Dos policias rebeldes**”

“**Una historia del Bronx**”

“**El primer caballero**”

“**French kiss**”



TALLER CREATIVO

HAURRENTZAKO ARTE KLASEAK BOST URTETIK AURRERA

**MARRAZKIAK - PINTURA - MODELAKETA - ESKULTURA
- ZERAMIKA TORNUA - ARGAZKIGINTZA**

B.B.B., U.B.I. eta I.E.E.KO IKASLEENTZAT ARTE EDERRETAKO
PRESTAKETA IKUSENTZUTE ESKOLARAKO

DR. HUIZI KALEA, 4 BEHEA ANDOAIN

MunikoSt

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN

AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI


*Kultur bazkunak
Argitaratzen du*

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN



BILLABONA




ZIZURKIL



ASTEASU




LARRAUL




ADUNA



ZURE AUTOAREN ASEGURUA AUKERATU
BAINO LEHEN 10 ARTE ZENBATU...



POLIZA
10



MAPFRE

Xabin Mujika Tolaretxipi

*Kaleberria, 11 — Dr. Huici, 4
Telf. 59 23 07
ANDOAIN*

*"Lehenengoan Berma
Hirugarrenen Salneurrian"*

...ETA ASEGURU BIKAIN BATEZ GOZATU



Talleres KARRIKA, C.B



AUTO KONPONKETA

**BERRI NAHIZ
BIGARREN ESKUKO
AUTO SALMENTA**

Ubilluts auzoa. 56. Pol. zenb. Tel 30 02 14 ANDOAIN (Gipuzkoa)